

## Mondragon.edu, unibertsitate webgune onenen artean, erabilgarritasunaren ikuspegitik

2007/08/05

Usalo izeneko webguneak dio Mondragon Unibertsitatearen webgunea estatu espainiarreko lau onenen artean dagoela, erabilgarritasunaren ikuspegitik. Ondorio horretara iristeko **73 unibertsitatearen webguneak** aztertu ditu, **26 adierazle** aintzat hartuta, denak ere webguneen erabilgarritasunarekin lotuak.



Azterketa 2006ko irailean egin zuen Úsalo webguneak, jakiteko estatu espainiarreko unibertsitateen webguneak zenbateraino diseinatu diren **erabiltzailea gogoan hartuta**. Horretarako 26 adierazle erabili dituzte, lau taldetan banatuta:

- Irizpide politikoa diseinuan.
- Irakurgarritasuna.
- Diseinua.
- Laguntza informaziora iristeko.

### Unibertsitate webgunerik onenak

**Mondragon Unibertsitatearekin** batera, beste hiru unibertsitate hauek ere aipatzen ditu azterketak, webgune onenen jabe moduan:

Universidad de Córdoba, Universidad de Santiago eta Universidad Francisco de Vitoria.

### Erabilgarritasuna

Jakob Nielsen adituaren iritziz, erabilgarritasuna da kalitate ezaugarri bat webgune batena, eta adierazten du zelako erraztasunez erabil daitekeen berorren interfazea. Erabat uztarturik dago erabiltzailearen gogobetetasunarekin.

Vocento Media Trader eta CodeSyntax enpresek egin dute Mondragon Unibertsitatearen webgunea **elkarlanean**.